

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Portugaletako Udala****Portugaleten euskarazko jarduerak antolatzeko dirulaguntzen arautegiaren hasierako onespina.**

Portugaletako Udalbatza Osoak 2022ko martxoaren 31ko ohiko bilkuran besteak beste erabaki zuen hasiera onespina ematea Portugaleten euskarazko jarduerak antolatzeko dirulaguntzen arautegiari, jarraian agertzen den testuarekin bat etorritz.

Halaber erabaki zuen argitalpen honen biharamunean jendaurreratzeko, interesdunei entzunaldia emateko eta erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izateko epea zabalduko dela eta hala iraungo duela hurrengo 30 egunetan. Epe horretan erreklamazio-iradokizunik egiten ez bada, ulertuko da arautegi hori behin betiko onetsita dagoela.

Portugaleten, 2022ko martxoaren 31n.—Alkatea, Mikel Torres Lorenzo

**PORTUGALETEN EUSKARAZKO JARDUERAK EGITEKO DIRULAGUNTZEN ARAUTEGIA****1. artikulua. — Xedea**

Arautegi honen xedea da nortasun juridikoa duten eta irabazi-asmorik ez duten Portugaletako elkarteek dirulaguntzak ematea, norgehiagoka bidez, euskara hutsean egiten diren jarduerak egin ditzaten.

Hori guztia, Portugaletako Udalaren 2018-2022 aldirako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana, 2018ko martxoaren 22ko osoko bilkuran onartua, betez egingo da eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta hura garatzeko legerian ezarritakoarekin bat etorritik.

2. artikulua. — Onuradunak eta kanporatuak

1. Dirulaguntza hauen onuradunak izan ahal izango dira eta, horren ondorioz, dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte honako baldintza hauek betetzen dituzten nortasun juridikodun elkarteek:

- a) Irabazi-asmorik ez izatea.
- b) Portugaleten egoitza soziala edo presentzia aktiboa izatea; dirulaguntza hauen deialdia egin aurretik Portugaleten etengabeko lana eta proiektuak edo jarduerak egitea joko da presentzia aktibotzat.
- c) Portugaleten euskara hutsezko jarduerak egitea, publiko orokorrak parte har dezan. Ez dira diruz lagunduko elkarte antolatzaileko bazkideei soilik zuzendurikoak.
- d) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan adierazitako betekizunez gain, honako hauek betetzea:
 - d.1) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 ataleko kasuetan.
 - d.2) Dirulaguntza eman duen organoak egiten dituen egiaztapen-jarduketak onartzea, aipatutako legearen 14.1.c atalaren arabera.
 - d.3) Helburu berberetarako jasotako beste dirulaguntza batzuen berri ematea, aipatutako legearen 14.1.d atalarekin bat etorritik.
 - d.4) Administrazioarekin zorrik ez izatea. Portugaletako Udalarekin zorrik ez dagoela ofizioz egiaztatuko da. Gainerako administrazio publikoekin zorrik ez dagoela ardurazko adierazpen batean agertuko da.

2. Dirulaguntza hauen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira erakunde publikoak, hezkuntza arautuko ikastetxeak eta euskaltegiak.

3. artikulua. — Emateko prozedura

Emateko prozedura norgehiagoka izango da. Horren ondorioz, aurkeztu diren eskabideak alderatu egingo dira, haien artean lehentasun-hurrenkera bat ezartzeko, arautegi honetako balorazio-irizpideen arabera, betiere deialdian finkatutako aurrekontuko zenbatekoa gainditu gabe.

4. artikulua. — Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Diruz lagundu ahal izango dira diruz laguntzen den jarduera edo egitaraua garatze zehatzetik zuzenean datozen gastuak.

5. artikulua. — Diruz lagundu ezineko gastuak

Ezin izango dira diruz lagundu honakoen gastuak: txangoak, kultur bidaiak, bazkariak, askariak etab., olgeta eta jai jardueretatik eratorritak.

6. artikulua. — Eskabideak non eta noiz aurkeztu

Eskabideak idatziz aurkeztu beharko dira, horretarako prestatutako ereduaren arabera (I. eranskina), Portugaletako Udaleko Erregistro Orokorrean, astelehenetik ostiralera,



edo Herritarren Arreta Bulegoan, San Roke plazan, erregistro horietako bakoitza jendearentzat irekita dagoen ordutegian, arautegi honen deialdian ezarritako epean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabiliz ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

Epez kanpo aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko.

Informazioa eta eskabide-ereduak lehen aipatutako udal bulegoetan egongo dira eskuragarri, baita www.portugalete.org webgunean ere.

7. artikulua. — Ekarri beharreko agiriak

Eskabidearekin batera, agiri hauek ekarri beharko dira:

- a) Jardueraren proiektua, eredu normalizatuaren arabera (l. eranskina): jardueraren identifikazioa, proiektuaren beharraren justifikazio esplizitua, helburuak, jardueraren deskribapena, metodologia, hartzaileak, egutegia, giza baliabideak eta baliabide materialak eta ebaluazio-adierazleak.
- b) Proiektuaren aurrekontu zehatza.
- c) Erakunde eskatzailearen legezko ordezkari gisa diharduen pertsona fisikoaren ordezkartza-ahalmenaren egiaztagiria eta nortasun-agiri nazionalaren fotokopia.
- d) Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.
- e) Erakundearen estatutuen kopia eta zuzendaritza-batzordea eratzeko erabakia-ren kopia erkatua.
- f) Eusko Jaurlaritzako Elkarleen Erregistroko edo dagokion erregistroko inskripzio-ziurtagiria edo fotokopia konpultsatua.
- g) Bankuko ziurtagiria, datu hauek jasotzeko: kontu-zenbakia, titularra eta baimendutako pertsonak, baldin eta baimendutakorik badago; titulartasuna erakundearena izango da, eta ez inongo pertsona fisikoarena.
- h) Ardurazko adierazpena, hauexek agertzeko: helburu berbererako bestelako finantzaketa-iturririk ote dagoen eta, baldin badaude, zer zenbateko duten; eta zer laguntza-eskabide dauden ebazteke.
- i) Ardurazko adierazpena, egiaztatzeko erakunde eskatzailea eta haren ordezkariak ez daudela onuradun izatea eragozten duten inguruabarretako batean ere, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 atalen arabera.
- j) Ardurazko adierazpena, agertzeko erakunde eskatzaileak sexu-diskriminaziotatik zehapenik edo zehapen-espedienterik jaso ez duela, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea dela eta.

Erakunde eskatzaileak dirulaguntza hau aurreko urteetan eskatu badu, ez du berriro ekarri beharko c, d eta e ataletan aipatutako agiririk, betiere agiri horietan aldaketarik ez badago.

Eskabideak guztiz formalizatzen ez badira edo eskatutako agiriren bat falta bada, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak eramateko, eta ohartaraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena eman ondoren.

8. artikulua. — Instrukzioa

1. Dirulaguntzak emateko proposamena organo kolegiatu batek egingo dio organo emaileari, instrukzio-organoaren bitartez.

2. Portugaletako Udaleko Euskara Zerbitzua izango da instrukzio-organoa.

3. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 27ko 38/2003 Lege Orokorraren 24. artikulua-ren arabera, Portugaletako Udaleko Euskara Zerbitzuari dagokio, instrukzio-organoa den aldetik, ebazpen-proposamenaren oinarri izango diren datuak zehazteko, ezagutze-ko eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen ekintza guztiak ofizioz egitea, bai eta aipatutako 24.3 atalean zerrendatutako instrukzio-jarduerak ere.



4. Instrukzio-organoak, bere kabuz, egoki iritzitako jarduketa guztiak egingo ditu ebazpen-proposamena egiteko oinarritzat hartu behar diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko.

5. Eskabidea onartu ondoren, dagokion dirulaguntza izapidetzeko beharrezko espediente irekiko da.

6. Onartutako eskaera aztertu eta ebaluatu ondoren, instrukzio-organoak dagokion txostena eta ebazpen-proposamena egingo ditu eta organo emaileari helaraziko dizkio. Ebazpen-proposamen horretan berariaz adieraziko du eskatutako dirulaguntza ematen edo ukatzen duen eta, emanez gero, horren zenbatekoa ere zehaztuko du.

7. Deialdiaren oinarri arautzaileak eta instrukzio-organoaren ebazpen-proposamena aztertu ondoren, organo kolegiatuak eskabideak ebaluatuko ditu eta azaroaren 27ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorren 22. artikuluan aipatzen den txostena emango du.

8. Hauexek izango dira organo kolegiatuko kideak:

- Hizkuntza normalizazioko teknikari bat, presidentetzako zereginetan.
- Hizkuntza normalizazioko teknikari bat, idazkaritzako zereginetan.
- Kulturako teknikari bat, kide gisara.

9. Organo kolegiatua balio osoz eratzeko, presidentea eta idazkaria eta kideen erdiak bertaratu behar dira.

9. artikulua. — Ebazpena

1. Ebazpena egiteko eskumeneko organoa Alkatetza-Udalburutza da.

2. Ebazpenak adieraziko du eskatutako dirulaguntza eman ala ukatu egingo den. Emanez gero, halaber adieraziko da elkarte onuradunaren helbidea eta dirulaguntza-zenbatekoa. Ukatz gero, onuradunaren helbidea eta ukatzearen arrazoiak aipatuko dira.

3. Eskatzaileei dirulaguntza-zenbatekoa banan-banan jakinarazteaz gain, Portugalako Udalaren Gardentasun Atarian erakunde onuradunen zerrenda eta emandako dirulaguntza-zenbatekoa argitaratuko dira, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55.h) artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

4. Prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da, dagokion deialdian eskabideak aurkezteko finkatzen den epea amaitzen denetik aurrera. Epe hori igaro eta ebazpen espresurik jakinarazi ez bada, erakunde eskatzaileak ulertu beharko du bere eskaera ez dela onartu administrazio-isiltasunez, hargatik eragotzi gabe geroago espresuki ebaztea.

5. Udal-ebazpen horren aurka, zein behin betikoa baita administrazio-bidean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da eta, nahi izanez gero eta aldez aurretik, berraztertze errekurtsoa ere bai.

10. artikulua. — Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntza ordainaldi bakar batean ordainduko da, banku-transferentzia bidez, eskatzaileak adierazitako kontu korrontean.

11. artikulua. — Baloratzeko irizpideak

Aurkeztu diren proiektuak irizpide tea puntuaketa hauek aplikatuz baloratuko dira:

a) Proiektuaren balorazioa: gehienez 75 puntu.

a.1) ESEPeiko lotura: gehienez 30 puntu.

a.1.1) ESEPeo helburu eta ardatz estrategikoekin bat etortzea: gehienez 10 puntu.

a.1.2) Portugalako hizkuntza normalizazioko eremu estrategikoetan eragitea: gehienez 20 puntu.



- a.2) Kalitatea: jarduera kopurua, berezko kalitatea, iraupena: gehienez 10 puntu.
- a.3) Oihartzuna udalerritik kanpo: beste udalerrri batzuetako jendea erakartzeko gaitasuna: gehienez 5 puntu.
- a.4) Aurrekontua aurkeztutako proiektuarekin bat etortzea: oreka proposamenaren eta haren gostearen artean: gehienez 5 puntu.
- a.5) Jardueraren eragina emakume eta gizonen arteko berdintasunaren sustapenean: gehienez 10 puntu.
- a.6) Giza baliabideak: entitateko zenbat lagunek hartuko duten parte zuzena jardueraren burutzapenean eta eta entitateak zenbat lagun erabiliko duen antolakuntza-lanetan: gehienez 5 puntu.
- a.7) Egitura eta teknika baliabideak: entitateak jarduera burutzeko eskura dituen bitartekoak: gehienez 5 puntu.
- a.8) Diru baliabideak: autofinantziazio maila edo aurreikusitako beste finantzazio iturri batzuk: gehienez 5 puntu.
- b) Entitatearen balorazioa: gehienez 25 puntu.
 - b.1) Udalaren Euskara Zerbitzuarekiko elkarlana: interesik gabeko oarte hartzea ekitaldietan, bileretan etab.: gehienez 15 puntu.
 - b.2) Portugaleten euskararen sutapenean parte hartzea: gehienez 10 puntu.

12. artikulua. — Dirulaguntzen zenbatekoa eta bateragarritasuna

1. Dirulaguntzak aurrekontuko zuzkidurara mugatuko dira beti.

Arautegi honetako 3. artikuluan ezarritakoa gorabehera, aurkeztutako aurrekontua araztu ondoren, erakundeek eskatutako zenbatekoen baturak kreditu erabilgarria gainditzeko duenean, modu homogeneoan haztatuko da, aurkeztutako proiektu bakoitzak lortutako puntuazioaren eta eskatutako zenbatekoaren arabera, kreditu erabilgarriaren mugarekin.

Ondorio horietarako, aurrekontu araztutzat joko da diruz lagundu ezin diren gastuak aurkeztutako aurrekontutik murriztearen ondoriozko zenbatekoa.

2. Zenbatekoa kalkulatzeko, formula hau aplikatuko da:

$$SA_i = (MC_i * PD_i / \text{Sumatorio } MC_i * PD_i) * SP$$

$$SA_i = \frac{MC_i * PD_i * SP}{n}$$

$$\sum MC_i * PD_i$$

$$i = 1$$

Azalpena:

n = elkarte kopurua (i= 1, 2...n)

SP = dirulaguntza aurrekontu erabilgarri osoa

PD_i = elkartearen aurrekontu araztua

MC_i = elkarteari eman beharreko ehunekoa

SA_i = elkartearentzako dirulaguntza doitua

Eskabide bakoitzari eman dakiokkeen gehieneko zenbatekoa ez da 3.000 eurotik gorakoa izango, ezta aurrekontu araztuaren %80 baino handiagoa ere.

Ez dira baloratuko aurrekontu araztua bostehun (500) eurotik gorakoa ez duten proposamenak. Ondorio horietarako, aurrekontu araztutzat joko da diruz lagundu ezin diren gastuak aurkeztutako aurrekontutik murriztearen ondoriozko zenbatekoa.



2. Arautegi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste dirulaguntza batzuekin, horien izaera eta ematen dituen administrazioa edo erakundea edozein dela ere, baldin eta guztien baturak ez badu gainditzen diruz lagundu daitekeen jardueraren kostuaren %100.

3. Gainfinantzaketa gertatuko balitz, dirulaguntza murriztu egingo litzateke, diruz lagundutako gastuaren guztizko kostuaren mugaraino.

13. artikulua.— Birformulazioa

Behin eskabideak ebatzita, proposatutako zenbatekoa aurkeztutako eskabidean agertzen dena baino txikiagoa bada, erakunde eskatzaileak eskabidea birformulatzeke proposamena aurkeztu ahal izango du, jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen dirulaguntzara egokitzeko.

Eskabideak birformulatzean, dirulaguntzaren xedea, baldintzak, helburua eta balorazio-irizpideak errespetatu beharko dira.

Birformulazio horrek Portugaleteko Udaleko Euskara Zerbitzuaren berariazko onarpena izan beharko du.

14. artikulua.— Dirulaguntzen justifikazioa

Dirulaguntza justifikatzeko epea deialdian ezarritakoa izango da.

Erakunde onuradunek jasotako udal-funtsen aplikazioaren frogagiriak aurkeztu beharko dituzte.

Justifikazioa egiteko, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Diruz lagundutako jarduera justifikatzeko oroitidazkia, horretarako formalizatutako erudian (II. eranskina). Oroitidazki horrek hauexek agertuko ditu:
 - Erakundearen legezko ordezkariak aurkeztutako datuak egiazkoak direlako eta dirulaguntzaren helburua bete delako ziurtagiria, aurkeztutako aurrekontuaren eta proiektuaren arabera.
 - Jarduera azaltzeko oroitidazkia, honako hauek jasoko dituen: emaitzen balorazioa eta parte-hartzaileen edo onuradunen kopurua, generoa bereizita.
 - Jardueraren datu ekonomikoak.
 - Diruz lagundutako jarduera egiteko gastuak eta kostuak justifikatzeko agiriaren zerrenda zenbakiduna eta banakatua:
 - Egindako inbertsioa egiaztatzen duten fakturen kopia, zeinean eskabidearen xede diren eta diruz lagun daitezkeen kontzeptuak jasoko diren.
 - Aurkeztutako fakturen ordainagiriaren kopia. Berrehun eurotik gorako ordainketak banku-transferentzia, banku-ziurtagiri edo ordainketa-laburpenaren bidez egiaztatuko dira. Agiri horietan argi eta garbi identifikatu beharko dira ordainketaren hartzailea eta jaulkitzailea.
- b) Portugaleteko Udalaren eta Euskara Zerbitzuaren babesaren berariaz agertzen duten kartelen, eskuko programen, oroitidazkien eta gainerako material grafiko, idatzi edo soinuakoen aleak.

Justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada edo dirulaguntza behar bezala justifikatzen ez bada, jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, dagokion berandutze-interesarekin batera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 atalean ezarri bezala.

15. artikulua.— Dirulaguntza ukatzeko edo itzultzeko arrazoiak

1. Dirulaguntza ukatzeko edo itzultzeko arrazoiak izango da eskatutako agiritan datuak ezkutatzea edo faltsutzea edo osatu gabe aurkeztea.

2. Eskabideek ez badituzte eskatutako datuak biltzen edo horiekin batera ez bada adierazitako agiritik aurkeztu, interesdunei hamar eguneko epea emango zaie ikusitako akatsak zuzentzeko eta ohartaraziko zaie, hala egin ezean, eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela.

**16. artikulua.—Erakunde onuradunen betebeharrak**

Arautegi honetako dirulaguntzen erakunde onuradunek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte:

- a) Helburua betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera egitea edo dirulaguntza ematea funtsatzen duen jokamoldea izatea.
- b) Justifikatzea betebeharrak eta baldintzak bete direla, jarduera egin egin dela eta dirulaguntzaren helburua bete egin dela.
- c) Dirulaguntzaren zenbateko osoa aurkeztutako jarduera edo programa garatzeko erabiltzea.
- d) Proiektua edo jarduera Portugaleten egitea.
- e) Helburu bererako beste erakunde edo organismo batzuetatik dirulaguntzarik edo laguntzarik jasoz gero, horren berri ematea.
- f) Zerga-betebeharrak, zuzenbide publikokoak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak ere egunean izatea.
- g) Men egitea Portugaleteko Udalak egin beharreko egiaztapen-jarduerei, bai eta kontrol-organo eskudunek egin beharreko finantza-egiaztapeneko eta kontroleko beste edozein jarduketari ere, eta jarduketa horiek gauzatzean eskatzen zaien informazio guztia ematea.
- h) Diruz lagundutako ekintza edo programen publizitatea osorik euskaraz edo, gutxienez, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan argitaratzea.
- i) Jarduerak antolatzeari buruz indarrean dagoen araudia betetzea: erantzukizun zibileko aseguruia, joko eta ikuskizunei buruzko araudia, hala badagokio, espazio publikoa okupatzeko udal-baimena, etab.
- j) Jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatze- eta kontrol-jardueren xede izan baitaitezke.
- k) Portugaleteko Udalarekin lankidetzan aritzea, dirulaguntza hauen xedearekin zerikusia duten kasuetan.
- l) Jarduera edo programa horien antolaketak eragindako gastu guztiak bere gain hartzea.
- m) Dirulaguntza jaso duten jardueren publizitate mota guztietan, Portugaleteko Udaleko Euskara Zerbitzua beraria aipatzea eta jarduera horien eguna eta ordua Portugaleteko Udaleko Euskara Zerbitzuari jakinaraztea.
- n) Jasotako funtsak itzultzea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotako kasuetan.

17. artikulua.—Onuradunen informazioaren konfidentzialtasuna

1. Portugaleteko Udalak konpromisoa hartu du dirulaguntza hauen onuradunei buruzko informazioa ez duela erabiliko programaren esparrukoa ez den beste ezertarako.

2. Datu pertsonalen tratamendua honako hauetan ezarritakoaren arabera egingo da: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa; 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Legebiltzarrarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

18. artikulua.—Dirulaguntzen publizitatea

Aurkezteko epea amaituta eta eskaera guztiak ebatzita, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 30. artikuluan arabera argitaratuko da.

**19. artikulua.— *Aurrekontuko zuzkidura***

Dirulaguntza hauek emateko, dagokion deialdian jasotzen den zenbatekoa erabiliko da, ekitaldi bakoitzeko udal-aurrekontuaren barruan.

20. artikulua.— *Arau aplikagarriak*

Arautegi honetan xedatu gabeko guztian honako hauek aplikatuko dira: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua eta ezarritako gainerako arau orokor edo prozedurazkoak.